



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

576. zkia.

XIV. urtea

2006ko ekainaren 16a



Joseba Igartua, Haundiko jokalaririk ohia

**«Futbola droga
modukoa da niretzat»**

uztaila ostiraleko

Uztailak 7



PAINTBALL (Debaventura)
Irten: 10:00etan
Itzuli: 18:00etan
Prezioa: 20 €

Uztailak 14



KANOA eta SURFA (Urdaibai)
Irten: 08:00etan
Itzuli: 20:30ean
Prezioa: 50 €

Uztailak 21



BEIGORRI ABENTURA
PARKEA (Lekunberri)
Irten: 10:00etan
Itzuli: 18:00etan
Prezioa: 20 €

3 ekintzetan izena emanaz gero,
50€ besterik ez dira ordaindu behar!

IZEN-EMATEA

- Diru-sarrera kontu honetan egin behar da: KUTXA 2101 0036 65 0124148420
- KUTXAKo ordainagiria, izen-emate orriarekin batera, Elgoibarko Izarrara ekarri behar da Elgoibarko Izarra. Ubitarte plaza 4.
- Matrikula ordaindu ondoren atzera egiten duenari, ordaindutakoaren %80a buclatuko zaio, arrazoitutako kasuetan.
- Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Nagore) eta nagore@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikoan.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezue!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



SARE GURRUTXAGA

Arratsaldeon Aitzol;

Ameslaria al haiz? Zientzia fikziozko filmak gidatzen al dituk hire garunean, errealitateetik urrun? Pentsatu nahiko nitek baietz.

Aurrekoan lagun batekin hontaz hizketan ari nintzela, gure burua fantasiara bideratzea osasungarria izan behar dela ondorioztatu genian. Akaso, gure jokabide ameslaria normalizat jotzeko bide bat baino ez zuan ondorio hura. Baina nork ez du bere baitan gertatzea nahiko lukeen istoriotxo edo eskena sortu? Bizitzera desio duen irudia marraztu? Ziu nauk ia denok egiten diagula hori, maiz gainera.

Ohera sartu eta lo hartu aurreko unetxo; kotxean edo trenean lanera hoan eguneroko aldia; dutxapeko esnatzea; San Lorentzora asfaltuaren aurkako gudan ari haizen momentua; igerilekuan erlaxatzeko ematen dituan 20 itzulietan... Une hoietan jartzen diat nik martxan barneko ameslaria. Izugarri gustatzen zaizkidan uneak dituk, nola ez.

Akaso, bizitzera ausartzen ez garen bizitza amesten diagu, edo bizi ezin diagun bizitza. Baina denbora gutxirako bada ere gorputzari plazerra eta ongizatea eskaintzen dion serotonina askatzera heltzen gaituk, irribarretxo bat sortaraziz.

Kuestioa ez duk ametsetan bizitzera, errealitatea ukatuz, baina bai amesten jakitzera eta horrekin ustez urrun geratzen zaigun izar hura ukitzea; erre gabe noski!

ZOZOAK BELEARI...



AITZOL GARMENDIA

Ametsak erditzeko makina, hori bai makina garbia!

Gogorapen zaharrenean garaikoak ditun nere lehen ametsak. Sapai alde honetan hautsak kentzen hasita, denetarik aurkitzen ari naun, amets bilduma bariatua: amets goxoak, amets handiak, amets lizunen bat ere bai... Batzuk momentuko desio eta nahi koiunturalak izan ditun, besteak urteetan barrena errepikatutakoak eta oraindik ere bazagon betirako hezurretaraino iliztatutakoren bat ere. Edonola ere atzera begiratze ariketa honetan gauza bat argi agertu zaidan, nere desdixarako. Ohartu naun ITVa pasatzen ere lanak izan behar ditudala, hire enbido honi erantzun nahian gorriak pasatzen ari naun eta. Nere ameslariari motorra gripatu zaion. Garai bateko produkzioaren aldean gaur egungoa diskretoagoa dun, nolabait esateko.

Primerako pilotoa izan naun, Sare. Baina orduan errezagoa zunan. Denak handiago zirudien egun haietan, sustrairik bota gabeko zuhaitzxoak gindunan, inozente xamarrek, oraindik indokumentatuak.

Denboraren poderioz partzela estutean landatu gaitizten eta gizartea deritzon antzerki mundial honetan gure papertxo, tokatutako rola, banatu ziguten. GPSak marcatzen zigun bidea. Heldutasunaren arantzek gurpilak zulatu ote zizkidaten?

Mekaniko bila hasi beharko naun. Ezagutzen dun inor?

«Bizitzera
ausartzen ez
garen bizitza
amesten diagu»

SARE

«Nere
ameslariari
motorra gripatu
zaion»

AITZOL

GURE OROITZAPENAK DIRA KONTROLATZEN EZ DUGUN AGINTEREN BATEK
KONTSULTATU ETA DESORDENATURIK ITZULI DIZKIGUN TXARTEL FITXATEGIAK

Cyrill Connolly

Elgoibarko herriari:

Trinitateetako gure tanborrada bukatu, eta erabat balorazio positiboa egin ondoren, Elgoibarko herriari, tabernei, dendei, elkarteei eta eskuzabaltasun osoz lagundu diguten guztiei gure eskerronik sakone-na adieraztea baino ez zaigu gelditzen.

Horretaz gain, eskerrak eman nahi dizkiegu partaide guztiei, entseguetan, burubelari eta ilusio handiz aritu direlako. Hala ere, inolako zalantzarik gabe, zenbait urtetan Tanborradan jotzen jardun dutenak aintzat hartu nahi ditugu, horiek baitira, ziurrenik, tanborrada aurrera eramanez. Halaber, aipamen berezia egin nahi diogu Haritz Euskal Dantzari Taldeari, haien ekitaldietan erabiltzen dituzten jantziak lagatzean eta beraien laguntza ematean, eskuzabaltasunez aritu baitira.

Inola ere ez dugu karroza muntatzeko lokala utzi diguna ahaztu nahi. Bestalde, gogoan ditugu soldadura-lantegia eta etengabe lanean aritu diren soldatzaileak.

Aldi berean, eskerrak eman nahi dizkiogu gure Udalari, Udaltzaingoari eta Musika Bandari, eman diguten laguntzagaratik eta egindako lanagaratik. Izan dugun babes guztia lagungarria da datoren urteko Tanborrada prestatzeko.

Azkenik, bihoa gure esker ona, kanoia eta gainontzeko tresnak hartuta, Bergararik etorri zen artilleroari, baita Eibartik etorri ziren bie ere. Bidenabar, eskerrak eman nahi dizkiegu Soraluzeko eta Azpeitiko Tanborradetako batzordekideei gurea prestatzeko eskaini diguten lankidetzara eta laguntzagaratik. Era berean, hedabideei ere gure esker ona adierazi nahi diegu.

Besterik gabe, bai partaideok, bai kalean gu animatzen egon zaretenok ondo pasatuko zenuten itxaropenarekin, agurtzen zaituztegu. Gu harro gaude eman diguzuen laguntzarekin.

Besarkada handi bat guztiontzat

2006KO TANBORRADAREN BATZORDEA

Eskerrik asko

Nire ezpainetan ez dago nahiko esker emateko modurik nire Pakori egindako omenaldiagaratik. Antolatzaile guztiei eta parte hartu zenuteno, bihotz bihotzez nire eskerrik beroenak eta samurrenak. Berak, Pakok, ziur nago ez zuela horrelakorik nahi izango, berak egindakoa behar zelako egin baitzuen, nahiz eta denbora txarrak izan. Eman du bere fruitua, pozik egongo da, eta lagunduko digu orain dagoen tokitik. Aurrera euskara eta euskaltzaleak.

MIREN - 15276936-Z

Larunbatean Iruñean hitzordua

Egun gatazka politikoaren konponbide demokratikorako aukerak inoiz baino irekiagoak daude. Konponbide horren alde azaldu dira Euskal Herriko alderdi, sindikatu eta eragile asko. Horiek izan ziren apirilaren 1ean Bilborako manifestazioa konbokatu zutenak eta herriak ondo ulertu zuten deialdiaren garrantzia. Aspaldi bildu den manifestaldirik garrantzitsuenarikoa izan zen, oraindik gogoan duguna. Baina ezin gara horrekin konformatu. Alderdi, sindikatu eta eragile gehiagoren adostasuna bilatu behar dugu. Horregatik, larunbatean

Iruñean beste manifestaldi bat konbokatu da. Bertan konponbiderako mahai lehenbailehen martxan jar dadila eskatuko dugu. Euskal Herriko alderdi eta ideologia guztietako partaidez osatutakoa. Mahai horren lana akordio politikoa bilatzea izango da, gerora euskaldun guztiok bozkatuko duguna. Gutzitan ematen dira halako aukerak. Konponbide demokratikorako prozesu honek aurrera egingo du, baldin eta euskal gizartea mugitzen eta mobilizatzen bada. Larunbatean beste aukera bat dugu mugitu nahi ez dutenak presionatzeko, kontrari daudenak gutxi direla islatzeko, prozesu honekiko adostasuna eta bultzada azaltzeko. Aprobetxa dezagun! Autobusa King-Kongeko autobus geltokitik aterako da 16:30ean. Manifestaldia Iruñeko Golem zinematik aterako da 18:00etan.

ELGOIBARKO EZKER ABERTZALEA

Morkaikoren eskerrak

Morkaiko Mendizale Elkarteak Elgoibarko Mendi Itzulia antolatzen lagundu zuten guztiak txalotu eta eskertu nahi ditu: Beristain, Lambroa, Eroski, Netto, Pilar eta Bollar frutadendak; Dori txarkuteria; Landa, Patxi, Ziarda, Iraola, Fraile, Zahatzu eta Armueta harategiak; Bolintxo, Idarraga eta Xigortze kafeak, Julio Bueno ardoak, Karakate, Konporta, San Migel eta Kalamua elkarteak eta Alzolako Urak. Harez gain eskerrik zintzoenak Euba Txiki, Irunabe eta Irunaberi baserriei, gure sukaldariei, eta nola ez, parte hartu zenuten guztioi.


MORKAIKO M.E.



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
Publizitatea: 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBlizitateA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETAZALEA** Jaione Unanue **KOLABORATZALEAK** Uxue Alberdi, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Alain Ulazia, Aizoa Vives, Koloa K.E., Urruzuno **ESEREA ZAHARRA** Gotzon Garateren libururik **IRITZIA** Geru **TRADA** 4.500 ale **LEGE GORDAILLA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

TXALOAK

- **Debemenetik eskerrak Zubi Ondo elkarteko:** "Trinitate jaietako azoka egunean Zubi Ondo elkartearen bazkaria zerbitzen ibili ziren guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Baita ere Zubi Ondo elkarteko zuzendaritzari eskeinitako laguntzagatik".
- **Eskerrak elgoibartarrei:** "Eskerrak asko heritar guztiei, zapatueta borroketan guk mantentzen ditugun poliziek eman ez dituzten babes ematezagatik".
- **Txalo handi bat Trinitateetako Tanborradako antolatzaileei:** "Aspaldiko partez ederra izan zen tanborrada. Parte hartzaile eta antolatzaileek txalo handi bat merezi dute. Jarraitu horrela!".
- **Herri Eskolako 6. mailako mutilei, zorionak:** "Zorionak mutilak! Eskubalo eta futboleko txapelak txapelak izatea lortu duzue eta Gipuzkoako txapelketa jokatu duzue. Eskerrak bereziki, Jose eta Antonio entrenatzaileei. Zorionak guztioi!"



KEXAK

- **Parrokia aurreko adokinatua kentzea ez zaigu ondo iruditzen:** "Udalak San Bartolome parrokia aurrean obrak egin behar dituela entzun dugu. Bere asmoa Plaza Handiko lurrarekin berdintzea omen da. Ez zaigu batere ondo iruditzen eliza aurreko lur adokinatua kendu eta zementozko lurra jartzea, herriak daukan tokirik politena da eliza aurrea eta herri askotan ari dira horrelako lurra jartzen. Jarlekuak eta zuhaitzak aldatu nahi badi-tuzte egin dezatela, baina lurra utzi dagoen bezala, mesedez".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: baren@elgoibarkoizarra.com
 Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 943 74 41 12

komikia

Hil da gero...



Kokoe 063

1956-2006

Gau-eskolatik euskaltegiara 50 urtean

Hunkigarria izan zen Pako Juaristiri eskainitako omenaldia



Aurten gau-eskola sortu zeneko 50. urteurrena dela aprobetxatuz, Elgoibarko Izarrak, AEK-k eta Udal Euskaltegiak (Udalaren babesarekin) prestatu zuten omenaldia. Omenaldia fina eta polita izan zen, eta oso une hunkigarriak bizi izan ziren ordubeteko iraupena izan zuen ekitaldian. Aurkezleak esan zuen bezala, "omenaldia txikia baina benetakoa" izan zen.



Omenaldia gau-eskola sortu zuenari egin bazitzaion ere, antolatzaileek akorduan izan zituzten 50 urteotan euskara ikasteko ahalegina egin duten herritarak. Ehunka lagunek jardun dute euskara ikasten mende erdi honetan, eta denak biltzerik ez zegoenez, denen partez hiru ikaslek jaso zituzten omenaldira joan zirenen txaloak. Pakoren alargunak eman zien arrosa bana hirurei.

Musika Eskolako auditorioa gainezka zela egin zitzaion omenaldia 1956an gau-eskola sortu zuen Pako Juaristi zenari. Omenaldian, besteak beste, euskara ikasleen testigantza batzuk, Pakoren gaineko irudiak, erregaluak, dantzak eta kantuak izan ziren. Pako 1994an joan zenez gure artetik, Miren alargunak jaso zituen omenaldira joan zirenen esker ona eta txaloak.



Omenaldiko unerik hunkigarrienetako bat, akaso, poesiak eta kantuak bat egin zutenean etorri zen. Poesiak Mirenenak ziren, alargunarenak, eta kantuak, berriz, Julik eta Agurtzanek abestu zituzten. Pakori izugarri gustatzen zitzaion kantatzea, eta berari gehien gustatzen zitzaionarekin azaldu zioten esker ona. Eta Pako dantzaria ere bazenez, dantzak ere izan zuen bere tokia.



Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik
eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**

Zatoz informazio eske!

[AKORDATZEN NAIZ]



ANTONIO BERASALUZE

1932an jaioa

«Etxebizitzak»

Ni akordatzen naiz oindiokan zenbat pagau naban nere etxia. Ordurako ere asko zan, baiña ez oin beste. 165.000 pezeta pagau nittun 1960 urtian. Etxe berrixa. Arananeke taillarran parian. Gu bizi izaten jarri giñan etxetik gora egin zituen etxiak doblia balixo zeben. Orduan ere preziuak azkar igotzen ziran. Gorakada hori ointxe bezela igartzen zan. Elgoibarren etxebizitza mordua

dago hutsik, eta horren balixua kalkulatzia ez da erretza. Egitten dan beste etxe bihar da hemen? Neri horrek zer pentsau haundixa ematen diit.

Etxiak egin eta egin, baiña zeñentzat. Oin familixak gero eta txixuaguak dira, ez da lehen bezela. Sem-alaba mordua eukitzen ziran, eta harek danak ezkontzen ziranian etxia bihar zeben. Gaur egun, ez da horrenbeste etxe bihar.



[GURE BERBAK]

Erlatibozko esaldi batzuk

Erlatibozko esaldi arruntak (erosi daban liburua) ez dittugu hona ekarriko, ez dauke-eta misterio haundirik. Erlatibuetan, baiña, badira erakutsi nahi nittuzkeen egitura batzuk.

Bata [Galde-hitza + aditz partizipiu + (-ø/-a/-rik)] egitturia da:

Ez, ez, kalian ez dago lekurikan. Ta, gaiñera, kalian kotxia nun lagarik ez dago. Errekauetara junda ere, segittuan daukazu txartela egitten.

Lana bakarrik egittiak ez dau balio. Zeñek pagava falta da hamen.

Aste Santuan da, ez dago playara jua ere egitterikan. Ezta ... ez dago nun toallia ipiñirik eta.

A klaro, hi, Elgoibarko konbersaziua hartziarren dok. Oiñ, hi, gure konbersaziua hik ez dakak zergatik hartu, eta korridu hori, eh!

Bestiak, esaldi erlatibuaren ordezebiltzen diran batzuk

Da takillan ipiñi, ta hurrengo kalera juten giñanian, erun kalera, ...

Da basarixan ere, nun dau etxiak paritarik lodixena? Haren parian jartzen giñan.

Bai, bai. Da gu lenengo hasi giñanian gaiñera, hamabi-hamahiru ordu egitten ziran.

Jesus Mari Makazaga



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmología Clínica

www.clinicarecalde.com

MIOPIA LASER - KATARATA
EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

JOSEBA IGARTUA

HAUNDIKO JOKALARI OHIA

«Nire bizitzako hiru laurden pasatu ditut futbolean jokatzeko»

1992. urtea, Lerungo futbol zelai zaharrea ez da orratz bat ere kabitzen. Haundi eta Barbastro elkarren aurka ari dira; Bigarren B mailara igotzea dago jokoan. Zortzi minutu eskas falta dira partida amaitzeko eta elgoibartarrek gola behar dute nahitanahiez. Gauzak okerren zeudenean Joseba Igartua "Buru", 20 urteko aurrelari gaztearengaino iritsi da baloia eta honek sare barruan sartzen asmatu du. Zorramena nagusi Lerunen. Une historikoa eta gol historikoa Igartuak sartu zuena, C.D Elgoibarren 87 urteko ibilbidean. Zaletu asko akordatuko dira gol haretaz eta berak ere barruan gordeta darama. Ez dira futbolak laga dizkion oroitzapen on bakarrak izan. 25 urtez futbolean jokatu ostean, 34 urterekin lagatzea erabaki du.

► **Duela 2 urte BARRENi eskainitako azken elkarriketan, Haundi 3. mailan zegoela laga nahi zenuela futbola aipatu zenigun. Esan eta egin.**

Urtebete beranduago, baina esandakoa bete dut bai, eta futbol jokalaria gisa hasitako zikloari amaiera eman diot. Ondarruko Aurreratik ekarri nindutenean, talde on bat osatu eta Haundi 3. mailara igotzea zen asmoa, eta lortu dugu.

► **"Buru"ri buruan gordeta geratuko al zaio agurreko partida?**

Bai. Une hunkigarriak bezain gazi-gozaok izan ziren. Gaziak, jokalaria ibilbidea bukatzen nuelako, eta gozoak, lagun mordoz inguratuta egon nintzelako. Oso nerbioa atera nintzen eta zelai erdian infantilak (hauen entrenatzailea da), taldekideak eta Arenasekoak ikusi nituenean... egoerak gainditu egin ninduen. Lehen 20 minutuak izan ziren txarrenak. Oroitzapen mordoa pilatu zitzaizkidan; onak zein txarrak. Nire inguruan eduki dudana jendeaz, entrenatzaileetatik, denetatik akordatu nintzen, baita jaietsieretako une garrantzez ere, baina futbolarik eman dizkidan gauza onekin geratzen naiz, asko izan dira-eta. Nire bizitzako hiru laurden, 25 urte, egin ditut futbolean, oroitzeko gai naizenetik egin nahi izan dudana da.

► **Zer eman dizu futbolak?**

Igoeretakoa une atseginetaz gain, lagun mordoa laga dizkit, bai aldagelan eta bai kalean. Gogoko dut zaharrek kalean geratu edo agurtzen nautenean, guk egindakoa norbaitemgana iritsi den seinalea baita. Aurki, joandanean 15 urteetan futbole-



an ibilitakook bazkaria egingo dugu. Hori da polita dena, eta garrantzitsua taldearentzat: mahai baten inguruan gauza asko eta zintzoak esaten dira-eta. Ez da gure buruari lorak botatzearren, baina Haundian egin ditudan 14 denboraldietan aldagela beti egon da osasuntsu

► **Asko kosta al zitzaizun lagatzeko erabakia hartzea?**

Ez, nire baitan mamitua neukan-eta. Martxo aldera jakinarazi nion entrenatzaileari. Azken aldia beheraldi fisikoa nabaritzen nuen; nahi eta ezin. 3. Mailako lehen urtean partida asko jokatu nituen arren, sarritan lesionatu nintzen. Gainkarga eta antzerako lesio txiki asko izan nituen, eta aurten areagotu egin dira. Honez gain, askotan, lana eta futbola zailak dira uztartzen.

► **Ez dira asko 34 urtera arte irauten dutenak...**

Zorte handia eduki dut, lesio larririk ez baitut izan. Alabaina, eduki dudana gogoa eta ilusioa, horiek dira balio dutenak, ez dago beste sekreturik. Askotan buruak gehiago egiten du gorputzak baino. Futbolaren funtsa; lana, ilusioa, umiltasuna eta disziplina direla gogoratzea gogoko dut. Ilusioa baldin badaukazu, une txarrak, lesioak, e.a. askoz eramangarriagoak dira.

► **Euskal jokalararen ezaugarriak al dira?**

Baliteke, baietz uste dut. Lehen eta bigarren mailetan kalitateak egiten du alde, baina beheragoko mailetan lana eta lana da. Umiltasun eta disziplinarik gabe

jai dago. Norbere baloreak mantendu ezean, taldeek behera egiten dute orokorrean. Athletic ere gaizki ibili da, baina euren buruengan, baloreetan, sinistu dute azkenera arte, eta horrek salbatu ditu; arraza, kasta horrek.

► **Bi urte egin duzu infantilak entrenatzen. Jarraitzeko asmorik ?**

Bai, jubenil eta erregional mailako entrenatzaile tituloak ateratzeko gogoia daukat. Elgoibarrek dena eman dit eta ni orain beraien esanetara nago, nahi dute nerako. Eman didan guztia nola edo ahal itzultzea gustatuko litzaidake.

«Klubak dena eman dit eta ni orain bere esanetara nago»

► **Nola ikusten duzu harrobia?**

Jokalaria gaztetxoek ez dute futbola guk bizi genuen moduan bizi. Guk disziplina gehiago genuela iruditzen zait. Sekula ez dut aurten adina orroa egin. Ez nekien horretarako gai nintzenik ere, izkutuan zegoen nire izakerako alor hau. Oraingo gazteeri futbola ez zaiela gehiegi gustat-

zen uste dut. Guk ilusio gehiago genuen, baina ez futbolerako bakarrik, edozertarako esatera ausartuko nintzateke.

► **Nola gogoratzen duzu Barbastroren aurkako gol historikoa?**

Bitxia da, baina ez dut gogoratzen zein hankarekin sartu nuen. Argazki edo irudirik ere ez dago zalantza argitzeko. Partida amaieran zelai erdian nengoela gogoan dut eta ikusleak niregana etorri zirenean negar malkotan hasi nintzen emozioaren-emozioz. Leku eta une aproposan egoteko zortea izan dut. Lesakan ere igoeraren gola sartzeko aukera izan nuen.

► **Oso forfofoa, futbol zalea ei zara...**

Futbola droga modukoa da niretzat. Pentsa, 7 urtez jarraian Maradonaz moztortu naiz inauterietan. Nire idoloa izan da eta paperean sartzen naiz, gainera.

► **Argentinaren hizkera imitatzen trebea zarela esan digute...**

Bai, lesionatuta nengoen batean Zazpiki Irratiko unitate mugikorrarekin Haundiko partida bat erretransmititzen lagundu nion Oier Gurrutxagari. Elgoibar Torrelavega partida izan zen Bigarren B mailan geundela. Argentinaz azentoz egindako komentario batzuk egin nituen eta erretransmisio haren zinta eskuz-esku herri guztiatik pasa zela uste dut! Oso ondo geratu zela aitortu beharra dago.

► **Nork irabaziko du Mundiala?**

Holandarek egiten duten futbolaren jarraitzailea izan naiz betidanik eta Laranjek irabazi ezean, irabaz dezala Argentinak.

[PROTAGONISTA]



Jaime **Martinez**

Jaime Martinez arkulari elgoibartarrak Euskadiko Liga irabazi du basoko arku tiraketan. Joan zen astean jokatu zen X. Euskadiko Txapelketako finala arabako Larrabea basoan. Oraingo honetan 3. postuan amaitu zuen proba 186 punturekin, baina nahikoak izan ziren puntu horiek aurtengo denboraldiko txapela jantzeko. Elgoibartarra izan da puntueria onena izan duena. Hiru dimentsiotako animalien irudiak jartzeko dira 1,5 kilometroko luzeran (hartzak, leoiak, basurdeak...) eta horiei tirokatzea da helburua. Jaimek 707 puntu lortu ditu guztira.

[NOTIZIA]

Ostegunetako azokako saltzaile gehienak joango dira Sigmara

Marivi Agirregomezkorta alkateak jakinarazi digunez, ostegunetako azokako saltzaile guztiek sinatu dute Sigmara joateko lizentzia, batek izan ezik: "Sinatu ez duen saltzaile bakarria jubilatzeke sasoian dago, eta uste dugu horregatik ez duela sinatu"

Normaltasunerako bidean

Ostegunetako azokaren gaiak luze jo du, baina badirudi gatazka amaitzeaz dagoela. Marivi Agirregomezkortaren hitzetan, "normaltasunerako bidean gaudela uste dut". Ekaina amaiera alderako edo uztailera lehenengo ostegunerako jarriko da ostegunetako azoka Sigmara. Alkatearen ustez, primerako lekua da Sigmara eta azoka bikaina izango dugu: "konbentzitu-



ta gaude, lekua oso ona da, euria egiten duenean ere, ez da arazorik izango. Plaza Handitik 300 metrora dago eta ziur gaude, azkenean herritarrak eta saltzaile guztiak pozik egongo direla".

[ZENBAKIA]

196

Aurtengoan 193 umek eman dute izena Atxuxia-maika Aisialdi Taldeak antolatutako udalekuetan. Iaz baino 15 haur gehiago izango dira aurtengoan, baina adin tartea zabaldu egin dutela esan digute. HH eta LH 1-2 mailetan 140 ume apuntatu dira, LH 3-4an 33, LH 5-6 mailetan 14 eta DBH 1 eta 2an, 9.

[ARGAZKIA]



Bizitzan behin bakarrik egiten dira 50 urte eta Elgoibarren, 50 urte betetzen dituztenek ospakizun berezia egiten dute. 1956. urtean jaiotako elgoibartarrek joan zen ekainaren 3an izan zuten beraien ospakizuna. Dotore-dotore jantzita atera zuten argazkia balatokian, meza bukatu ostean. Gero bazkaria egin zuten Sigma jatetxean, eta umorerik ez zen falta izan egun osoan zehar. Ondo jan eta edan ondoren, dantzarako dituzten doaiak ere erakutsi zituzten. Argazki honetan ikus ditzakegu mende erdia bete duten elgoibartarrak.

71.128m²ko industrigunea eraikiko dute Lerun Txikiko ingurunean



Udalak Arau Subsidiarioen aldeketa proposatu du Lerun Txiki-Morteriako ingurunean industrigunea egin ahal izateko. Beraz, ingurune honetan 71.128m²ko industrigunea izango dugu etorkizunean.

Hasiera batean egindako planteamenduan Deba ibaiaren norabide aldeketa azaltzen zen, eta horrek atzera bota zuen proiektua, izan ere, ingurugiroaren aurkako ondorio latzak aurikusten ziren eta Altolako bizilagunentzako arriskutsua izan zitekeen, ibaia handitzen zenean, batez ere.

Orain egindako proposamenean, Deba ibaiaren norabidea dagoen moduan mantenduko da. Orduko planteamentu hartan aurikusten zen industriguneak 108.821m² zituen.

Azalera erdia hartuko dute enpresek

Industriguneko azalera osoaren erdia hartuko dute enpresen partzelek, hau da, 35.564m². Bestalde, enpresen altura ezin go da 11 metro baino altuagoa izan. Gainera, eraikitako 100m² bakoitzeko aparkaleku bat egin beharko da.

[MOTZ-MOTZIAN]

Bertso barmetegia Aubixan

Euskal Herriko Bertsozale Elkarateak gaztetxoentzako bertso barmetegia antolatu du udarako. 15-18 urte bitarteko gazteek 10 egun pasatu ahal izango dituzte Aubixan, bertso giroan murgilduta. Uztailearen 21etik 30era izango da. Prezioa 165 euro. Interesatuak Udaleko Euskara Sailean eman dezakete izena: euskara@elgoibar.org/943 744366.

Altolako zabor edukiontzia

Altolako zolatze lanak direla-eta, zabor edukiontzia lekuz aldatu dituztela jakinarazi du Udalak. Lanak bukatu arte, beraz, Altolako autobus geltokian jarriko dira zabor edukiontzia. Udaletik esan digutenez, datoren asterako berriz ere lehengo lekuan jarriko direla aurikusten da.

Gurutze Goriaren urrezko loteria

Gurutze Gorria hasi da dagoeneko urrezko loteria saltzen. 5 eurotan erosi ahal izango da herriko dendetan edo Gurutze Gorrian bertan. Zozketa uztailearen 20an izango da.

Merkatu Plazako zozketa

60 euroko hiru txeki banatu dituzte hilabete honetan Merkatu Plazako saltzaileek. Koro Urrategi, Marian Elizburu eta Arantza Mendikute izan dira irabazleak. Saria erosketa txeketan jasoko dute eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute.

Triska Dantza Elkartean ikuskizuna, bihar kiroldegian



Triska Dantza Elkarateak kurtso amaierako ekitaldia eskainiko du bihar, gaueko 22:00etan Olaizaga kiroldegian. 4 urtetik 28ra bitarteko dantzariak izango dira protagonistak. Eibar, Deba, Elgoibar eta Mendaroko 130 ikasle inguruk hartuko dute parte guztira. Ordubeteko dantzaldia eskainiko dute, eta mota desberdinetako dantzak ikusi ahal izango dira, besteak beste, dantza klasikoa, kontenporaneoa, jazz estiloa... Interesatuak Pitxintxun eros dituzakete sarrerak 3 eurotan.



Inkesta

Tenporek uda beroa izango dugula aurreratu dute.

Zer egiten duzu egunotako bero sargoriari aurre egiteko?

FLORENTINO FULGENCIO
Jubilatua 65 urte



“Gerizpean egon eta goizean goiz, fresko dagoenean, mendira joan haizea hartzera. Tenporei ez diet kasu handiegirik egiten, ez dut uste asmatzen dutenik.”

MARIA TERESA ABAD
Etxekoandrea
71 urte



“Egunez leihoak itxi eta gabez ireki, eta kalera ahal dudan jantzi freskoenarekin atera. Askoz hobeto jasaten dut hotza, beroak ez dauka erremediorik.”

ESTHER GALARRAGA
Fresatzailea
31 urte



“Ur asko edan, arropa gutxi-rekin atera kalera eta itzaletan egon, eguzki handiak jotzen duen lekuetatik ez ibiltzea da klabea. Hala ere, bero handiegia dago.”

AITOR ALVAREZ
Ikaslea
18 urte



“Ez dut ezer berezirik egiten, beroa jasan egin behar da. Ahal badut hondartzara joan eta bainua hartzen dut. Dena dela, ez da horrenbestera egunotako beroa.”

[BAI ala EZ?]

Organo emailea al zara?

BAI %69

“Bai, eta gainera esanda daukat inoiz ezer pasatuz gero, aprobetxatzeko ahal den guztia eta gainontzekoa erretzeko. Nahia-ko erreta, lurrazpian zizareak gizentzen baino.”

EZ %31

“Ez, askori tontakeria bat irudituko zaio, baina hil ostean ere, gorputza bere osotasunean edukitzea nahi dut. Ez du ezertarako balio, baina beste munduan akaso, behar izango dut.”

Datorren asterako... Hasi da Munduko Futbol Txapelketa

Ba al daukazu Munduko Futbol Txapelketako partidak ikusteko asmorik?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu

Gabi jatetxean.

Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

berria gure etxean euskara

Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoko prezioa baino %10 merkeago
2. Banaketa **DOAN** goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat zozketak, **opariak** eta deskontuak.
4. Promozioetan **abantailak**



Orain eskaintza berezia

Ekaina amaitu baino lehen harpidetuz* gero, **2 opari aukeran**

MP3 Irakurgailu digitala



Kamera digitala



Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**



IRAKASLEARI azterketa

Haur Hezkuntzako irakaslea

ITZIAR ETXANIZ



1 Zergatik irakasle?

Ez neukan oso argi, baina hauxe zen gehien gustatzen zitzaidana.

2 lkasle fina izan al zara?

Oso fina. Bi ikasgai bakarrik suspenditu ditut: 4. mailan buruketak eta batxilergoan fisika.

3 Irakasle gogorra al zara?

Momentu batzutan gogor jarri behar izaten dut, baina ez naiz gogorra.

4 Zein izan da jarri duzun zigorrik txarrena?

Behi berdina jartzen diet: txoko baten jartzen ditut egin dutenaz pentsatzen, edo bestela txikien gelara bidaltzen ditut; ez zaie batere gustatzen.

5 Zer behar du irakasle on batek?

Pazientzia, batez ere.

6 Zer ikusten da irakaslearen mahaitik?

Dena, umeek uste dute ez naizela konturatzen, baina dena ikusten dut.

7 Zaila al da suspentsoak jartzea?

Askok uste dute umeei nota jartzea errazagoa dela, baina jarrera ebaluatzea zaila da. Suspentsoa merezi duenari ipintzen diot, noski!

8 Irakasle ez bazina?

Berriro ere irakasle izatea aukeratuko nuke.

NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



TERE LOBETE ama



LAURA PERALTA alaba

GALDERAK

1. Zein da udarako planik onena?

1. Deskantsatzea, hondartzara joatea.

1. Valentziako Cullera herrira joatea.

2. Beroaren kontra ura ala coca-cola?

2. Ur freskoa da egariaren kontra onena.

2. Ura; coca-cola ez zait gustatzen.

3. Mintxetako igerilekua ala hondartza?

3. Nahiago dut hondartza.

3. Mintxetako igerilekuak.

4. Zerk beldurtzen zaitu?

4. Burua galtzeak.

4. Gurasoak berandu etxeratzeak.

5. Eta, zerk lotsatzen?

5. Publiko aurrean protagonista izateak.

5. Jendaurrean gaizki gelditzeak.

6. 18 urte izango bazenitu...

6. Ikasteko aprobetxatuko nuke.

6. Londresera joango nintzateke.

7. Noiz egin duzu negar azkeneko aldiz?

7. Ez naiz negar egitekoa.

7. Duela gutxi, lurrera erori eta min hartuta.

8. Aberatsa bazina...

8. Munduko kulturak ezagutuko nituzke.

8. Igerileku pribatua edukiko nuke etxean.

TXIKI inkesta

Zein filmetako protagonista izango zinateke?

Amaia Palacios
10 urte

Hermion (Harry Potter). Horrela, lanerako gogorik ez dudanean andereñoa igel bihurtuko nuke.



Iban Hernando
9 urte

Neo, hegan egiten duelako. Horrela, paisaje guztiak airetik ikusi ahal izango nituzke.



Ibai Konde
9 urte

Niri Tintin gustatzen zait asko, abentura mordoa bizi izaten ditu. Oso ondo pasatzen du.



Ander Ansola
9 urte

Harry Potter, majia egiten dakielako eta arrisku guztiak gaintitzen dituelako.



LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA

Elhuyar-ek eskainitako

"EUSKAL HERRIKO SOINU-TRESNAK"

CD-ROMa



AURREKOA:



Irabazlea: **Ez du inork asmatu**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo posta elektronikoz bidali:

baren@elgoibarkoizarra.com

GAZTIA NAIZ



lotsaGABE

Eneritz Muguruza

Oporretan ikastea lokatuko zaizula uste al duzu?
Ez, dena gainditu dut, baina Ingalaterra noa ingelesa ikastera.

Zein ikasgai izan da kurtsoko zailena?
Fisika eta kimika.

Beroari aurre egiteko modurik onena?
Hondartzara joan eta bainu on bat hartzea.

Zapaturako plan bat?
Lagunekin Elgoibarrera etortzea parranda egitera.

Asteko egunik gustukuenena?
Ostirala; ondoren bi jaiegun datozelako.

Zein izan da zure bizitzako unerik gozoena?
Maltara egin nuen bidaiia, oso ondo pasatu nuen.

Eta gaziena?
Ez dut momentu txarrak gogoratzen, etorriko dira!

Ikustezina bazina, zein tokitan sartuko zinateke?
Toki askotan, dena kontrolatuko nuke.

Aberatsa izango bazina, zer egingo zenuke?
Ondo bizi! Munduari buelta emango niuke.

Etorbizunean, non ikusten duzu zure burua?
Laborategi batean lan egitea gustatuko litzaidake, baina auskaloi!

Politika ala futbola duzu nahiago?
Ez bata eta ez bestea, baina aukeran, futbola.

Jarraituko al duzu Munduko Futbol Txapelketa?
Ez, berdin zait nork irabazten duen, baina Realak bada habeta.

Sinisten al duzu erlijioan?
Ez.

Gizonak eta emakumeak berdinak al dira?
Fisikoki ez, baina gaitasun berdinak ditugu.

Ezkondu ala elkarrekin bizi?
Elkarrekin bizi.

Zenbat gezur esan dizkizazu?
Bakana esan dizudala uste dut.

BARREN

jakiTek0...

KIROL ARGAZKIEN LEHIAKETA

Elgoibarko Udalak (Gazteria Saila eta Udal Kirol Patronatua) eta Ongari Argazkilari Elkartek Elgoibarko Kirol argazkien lehiaketa antolatu dute. Edozeinek parte har dezake eta arlo guztietako kirol argazkiek balio dute. Argazkiak uztailearen 21erako entregatu behar dira Olaizaga Kirolegian. Informazio gehiago Kirolegian edo 943 74 44 15 telefonoan.

ALEMANIARAKO AU-PAIR BAT

Udan alemanez ikasi eta diru piskat irabaztea nahi duenarentzat Elgoibarko Gazte Informazio Guneak Alemanian Au-Pair bezala lan egiteko pertsona bat behar du bi edo hiru hilabetetarako. Epealdi hau luzatu egin daiteke, familiakoek eskatuko balute. 18 urte eginda izatea eta alemanaren oinarriko ezagutza izatea eskatzen da. Interesatuek 943 74 14 61 edo 662293733 telefonoetara deitu.

EUSKAL HERRIKO II. SMS MEZUEN LEHIAKETA



UEMAK (Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea) Euskal Herriko II. SMS lehiaketa antolatu du. Mezuak sms edo ordenagailu bidez bidali daitezke. Mezu bakoitzak gehienez 100 karaktere izan behar ditu eta euskaraz idatzitakoak izan behar dira. Gaia: "Esaiozu ezetz". Mezuak bidaltzeko azken eguna ekainaren 30a izango da.



EUSKAL HERRIKO III. GRAFFITI LEHIAKETA

Euskara Elkarten Topaguneak Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketa antolatu du. Parte hartzaileek abuztuaren 31ra arte bidali ditzakete euren zirriborroak. Aurkeztutako zirriborro guztien artean aditu talde batek hamar lan aukeratu ditu, eta horien egileek irailaren 16an margotuko dituzte aurkeztutako zirriborroak, Tolosan. Hamar graffiti horien artean, lau sari banatuko dira iluntzean egingo den jaialdian: 1.200 euroko hiru sari eta "Kalitatea" sari bat, Eusko Label duten hainbat produktuz osatutakoa. Informazio gehiago www.tolosa750.net edo www.topagunea.org.

gazte
informazioa
Kultur etxean. Bigarren solairuan
Tel.: 943 74 14 61

Lan dosierrak, bekak, lehiaketak... guzti honen inguruko informazioa



Gazte informazioko panelean aurki dezakezu!

TRINITATE JAIEN ERREPASOA

TANBORRAK ETA TRIKITIXA NAGUSI

Trikiti eta tanbor hots artean igaro ditugu aurtengo Trinitate jaiak. Joan zen zapatuan Euskal Herriko trikitilari entzutetsuenak etorri ziren Elgoibarrera, eta kalejira alaiaren ostean, Manuel Sodupe "Gelatxo"ren partitura liburuaren aurkezpenean batu ziren guztiak udaletxeko pleno aretoan. Ekitaldia Gelatxoren semea, Pedro, omentzeko aprobetxatu zuten. Gaberdian, beriz, heritarrek hami eta zur laga zituen tanborrada berritua atera zen kalez kale. 220 heritarrek parte hartu dute aurtengo tanborradan eta igari zen; kainoia, karroza, kamujaja, fusilariak, e.a ikusgarria izan zen.





ESKOLA KIROLA

Ikastolako neskak Gipuzkoako txapelkunorde eskubaloian



Ikastolako seigarren mailako neskak, alebin kategorian, Gipuzkoako Eskubaloi Txapelketan parte hartu ondoren txapelkunorde geratu dira. Finalera iritsi ahal izateko, euren taldean lehenak sailkatu ziren eta finalerditako partidaren Donostiako Aitor Ikastolako taldea gainditu zuten.

Usurbilgo taldearen aurka jokatu zuten final handia joan zen domekan, Egiako Kiroldegian. Partidua berdindurik amaitu ondoren, bost minutuko luzapena jokatu beharra izan zuten, eta usurbildarren aldeko emaitzarekin amaitu zen.

Egindako partidu eta denboraldi bikainak ez zuten saririk izan, baina hala ere, zorionak merezi dituzte.

David Morais gazte elgoibartarra izan da Haundiko jokalaria erregularrena

David Morais, 22 urteko erdilari elgoibartarrak irabazi du 2005/2006 denboraldiko Haundiko jokalaria erregularrenari ematen zaion Idarraga Kafeak 9. Saria. Moraisek 73 puntu batu ditu guztira, Jesus Navarrete Amañako jokalaria baino 11 puntu gehiago eta Oier Iribar zarautzarrak baino 17 puntu gehiago. Meritu handia du Moraisek lortutakoak, estraineko urtea baitzuen

Elgoibarko talde nagusian. Erregionaletik 3. Mailarako jauzia igarriko zuen beldurrez hasi zuela denboraldia aitortu digu, "hasieran ez nekien jokatu ere egingo nuen, baina azkenean partida denak jokatu ditut bi izan ezik eta lau gol sartu ditut, nigan ez oso ohikoa. Arlo pertsonalean urte zoragarria izan da, ahaztezina". Argazkian Insausti presidentea eta Igartuaren artean ageri da.



Lagunak Pilota Txapelketako finalak ekainaren 23an jokatuko dira

Lagunak Pilota Txapelketa azken txanpara iritsi da. Pilotari gaztetxoek ekainaren 23an, datorren barixakuan, jokatuko dituzte finalak 17:45etik aurrera Plaza Handiko frontoian (eguraldia lagun badute).

Igeriketa Eguna eta 'Urpekaritza Ezagutu'

Zapatu honetan, hilaren 17an, Igeriketa Eguna ospatuko da Olaizaga Kiroldegian (9:30). Hau dela-eta, goiz guztian zehar igerilekuak (Haundia eta Txikia) itxita egongo dira. Bestalde, eguenean, hilak 22, Mintxetako Aire Libreko Igerilekuetara hurbiltzen diren guztiek "Urpekaritza Ezagutu" ekimenaren parte hartu ahal izango dute.

Beroa izan zen Zarautzeko triatloiko protagonista

"Ez nago batere gustura eta berriz saiatuko naiz" Zarautzeko Triatloia amaitu ondoren Ibon Gabilondoren berbek argi erakusten dute kirolariaren etsipena eta kemena. Bero sargoria egin zuten joan zen zapatuan Zarautzen eta kirolariak, gogorak eta zailduak izanagatik, ederki igarri zuten: 396 triatleta aurkeztu ziren irteeran eta 277k lortu zuten amaitzea. Gabilondo 63. postuan sartu zen helmugan 4:52:36 denborarekin. "Antxintxikako proban egin nuen pott, elikadura behar bezala ez zaintzeagatik. Uretan eta bizikletan gustura aritu nintzen, eta baita korrikako lehen erdian ere, baina azken 10 km.ak ordubetea egin nituen, espero nuena baino 20 minutu gehiago, alegia. Jose Mari Agirretxe izan zen Urgazi T.T.ko bigarren ordezkaria. Hau 99. postuan



sailkatu zen 5:02:37 denborarekin. Eneko Llanos gasteiztarrak irabazi zuen (3:59:46) proba. Paco Pontano argentinarra sailkatu zen 2. postuan eta Zeelanda Berriko Cameron Brown 3. postuan.

HIRU HANDIAK

11 elgoibartarrak eta mendaroar



[EMAITZAK]

ESKU PILOTA

Lagunak Txapelketa Txapelketa

- Idigoras 18 - Montes 14 (Benj)
- Arriola 14 - Loidi 18 (Benj)
- Gurrutxaga 18 - Agirrebeña 8 (Benj)
- Zubiaurre 18 - Ibarluzea 15 (Benj)
- Conde 18 - Iriondo 1 (Aleb)
- Amesti 18 - Zubizarreta 3 (Aleb)
- Lizarralde 18 - Plazaola 4 (Inf)
- Ibarluzea 18 - Arizabalaga 12 (Inf)

[AGENDA]

ESKU PILOTA Plaza Handian

Barixakua, 23

- 17:45 Idigoras - Loidi (Benj)
- 18:15 Zubiaurre - Gurrutxaga (Benj)
- 18:45 Conde - Amesti (Aleb)

Xabier Loiola Gipuzkoako Bolo Txapelketako irabazlea

Xabier Loiola sanmigeldarrak jantziko du aurten Gipuzkoako XXXVII. Hiru Txirlo Txapelketako txapel-dunari dagokion txapela, bera izan baita denboraldiko bolaririk erregularrena. Jokatu diren 10 jardunaldietan 41 txirlo botatzea lortu du Loiolak. Angel Ibarluzea sailkatu da bigarren postuan (37 txirlo) eta hirugarren postua ere auzotar bantentzat izan da, Jabier Osororentzat (31 txirlo), alegia. Bikoteka ere Xabier Loiola eta Angel Ibarluzea izan dira irabazle eta taldeka San Migel A taldeak alde handia atera die gainontzeko taldeei. Benjamin mailan Jon Ibarluzeak jantzi du txapela, etorkizuna ziurtatuta dagoela agerian jarritz.

Igor Ezenarro mendaroarrak 30. postuan amaitu zuen "Hiru Handiak" proba entzutetsu bezain gogorra, 15:47:23 denbora harrigarria egin eta gero. Kerman Moreno elgoibartarra ere ez zen atzean geratu eta 49. postuan (16:23:45) sartu zen helmugan. Lagun Onak taldeko Joxe Luis Albizuri izan zen iristen lehena (12:00:02). Bi urtean behin jokutzen den 100 km.ko mendi martxan Euskadiko mendirik garaienak, hau da, Aizkorri, Anboto eta Gorbea igo zituzten partehartzaileek la 1.000 lagun elkartu ziren Zaldudondoko irteeran, baina 639 mendizalek bakarrik lortu zuten Otxandioko helmugara iristea. Hona hemen Morcaiko Mendizale Elkartearen izenean "Hiru Handiak" egin zituztenen zerrenda.

SAILKAPENA

Postua	Izena	Denbora
30.	Igor Ezenarro	15:47:23
49.	Kerman Moreno	16:23:45
132.	Cesar Fidalgo	18:01:42
146.	Elias Fernandez	18:27:20
169.	Esteban Izagirre	18:49:39
183.	Rafael Matias	18:52:40
288.	Iñaki Burunza	20:26:54
310.	Nicolas Polo	20:26:54
388.	Jon Peli Uriguen	21:09:00
446.	Luis Canseco	21:36:30
584.	Oscar Goikoetxea	22:51:25

Lagunarteko Herri Kirol Txapelketa San Lorenzon

Joan zen zapatuan, Trinitateetako Azoka Berezia baseri mundua kalera hurbiltzeko ahaleginean zebilen bitartean, herriko gazte koadrila batek Herri Kirol Txapelketa antolatu zuen San Lorenzon. Lau laguneko bost taldetan banatuta; aizkoran, lokotx biltzen, txinga eramaten eta aitzur jaurtiketan neurtu zituzten indarrak, besteak beste. Batzuk besteek baino estilo gehiago erakutsi zuten arren, denak gustura ari zirela zirudien. San Lorentzora kasualitatez hurbildu zen batek baino gehiagok ezusteko ederra hartuko zuten ikuskizun honekin topo egitean.



[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

► Pisia salgai merkatu plaza alboan. Logela bat, egongela, komuna, sukalde eta ganbara itxia.

943 74 15 96 / 677 389 601

► Etxea salgai Mendaron (Mendarozabal).

686 622 192

► Etxea salgai Erosario kalean. Guztiz berriua. 168.200 euro.

943 74 84 48 / 636 57 11 11

► Etxea salgai Urasandin. Berritzeko. 3 logela, egongela sukalde, komuna. **677 772 920**

► Etxea salgai Madalan. 2 logela, garaje eta trasteroa.

678 93 92 41

ALOKAIRUA

► Etxebizitza alokatzen da erdialdean. Pisu berria. Igogailua. Bi logela. **943 20 30 83**

► Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **696023933**

► Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **943530162 / 628299628 (Katherine)**

► Luz Saint Sauver-en 4-5 pertsonentzako apartamentua alokatzen da uztaila eta abuztuan. Asteka.

626 453 056

► Gasteizen pisua osatzeko lagun bat behar da. Ondo kokatua, egoera onean. **945 27 42 83**

(mezua laga)

[AUTOAK]

► Honda Sky ziklotorra salgai. 536km. 570 euro.

627432361

► Ford Focus 1.8 TDDI 90v. autoa salgai. 2002koa. 49.000km. Irratia, 4CD, airbag, aire girotua, atzeko beirak tindatuak, direkzio lagundua. **649099593**

► Fiat Ulises autoa salgai. 97. urtekoa. Merke. **677435125**

(Aitor) 617032938

► Wolkswagen Golf TDI autoa salgai. 102 zaldi. 2005koa.

22.000km. Egoera oso onean.

2007ko maiatzera arteko bermea..

665723540/615765515

[GARAJE eta LOKALAK]

► Garaje itxia alokatzen dut San Roken, Telefonica inguruan.

600 64 84 74

► Garajea alokatzen da Pista Beltzean. Kotxea eta motorra kabitzen dira. 55 euro.

659 38 64 03

► Ermuaranbide 7an garajea salgai. **699 45 29 98**

[BESTELAKOAK]

► Ospitaleko ohea salgai.

Motorraren. **627432361**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. Lokalak, bulegoak, etxeak, elkarteak...

667 709 439

• Bi gizonetako eta emakume bat lanerako prest. **626462140**

• Uztailean goizez Lehen Hezkuntza 1etik 6rako eta DBH 1 eta 2. mailako klase partikularrak ematen ditut. **943742855**

• Udan klase partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza.

943531054

• Emakumea lanerako prest. Garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu... **699 60 91 90**

• Neska gaztea lanerako prest. Abuztuan nagusiak zaintzeko prest. **686 23 47 86**

• Kamarera esperientziaduna behar da asteburuetan.

943 12 12 62

• Neska arduratsua Mendaroko Ospitalean gaixoak zaintzeko prest. Esperientziaduna.

609286065

• Neska garbiketa lanak egin edo umeak zaintzeko prest.

666 814 916

• Emakume euskalduna pertsona nagusiak zantzeko prest. Egunez eta gaez. **943 74 44 33**

(Kontxi)

• Mutila lanerako prest: kamare-ro, igeltsero laguntzaile...

699 800 498

• Emakumea lanerako prest. Umeak edo nagusiak zainduz, garbiketa lanak... orduka edo interna moduan. **646235195**

• Neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zainduz, garbiketa lanak... orduka edo interna moduan. **943 53 19 03**

• Neska gaztea lanerako prest. Uztailetik aurrera. Garbiketa lanak, kamarera, sukaldari laguntzaile... esperientziaduna.

666 032715

• Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Egunez edo gaez. Orduka ere bai. Esperientziaduna. **943 17 28 96**

(Mertxe)

• Emakumea garbiketa lanerako prest. Lantegiak, lokalak, etxeak... **639 42 34 93**

• Alemaniako herri batean lan egiteko au-pair bat behar da. Bi ume zaintzeko, 2-3 hilabeterako (luzatzeko aukera), berehala hasitako. **943 74 14 61**



• Bergarako enpresak zaintzaile behar du.

Eref. 162006007647

• Deba enpresak zenbakizko kontrol dun makinarako programatzaile behar du.

Eref. 162006007852

• Zumaiako enpresak psikologoa behar du. **Eref. 162006006501**

• Zarauzko enpresak pintorea behar du. **Eref. 16200600544**

• Eibarko enpresak banatzaile behar du.

Eref. 162006007659

• Gipuzkoako enpresak sukaldaria behar du.

Eref. 162006007701

• Gipuzkoako enpresak administratzaile behar du.

Eref. 162006007894

• Arrasateko enpresak igelseroa behar du. **Eref. 162006007576**

• Azkotiko enpresak pintorea behar du. **Eref. 162006006539**

• Zumaiako enpresak erizain laguntzaile behar du.

Eref. 162006007674

• Zarauzko enpresak makina-erremintzen mekanikako teknikaria behar du.

Eref. 162006007631

• Donostiako enpresak ingeles irakaslea behar du.

Eref. 162006007601

• Arrasateko enpresak klinika laguntzaile behar du.

Eref. 162006007511

• Mutrikoko enpresak muntatzaileen taldeburua behar du.

Eref. 162006005308

• Azkoitiko enpresak kalitate kontrolerako arduraduna behar du.

Eref. 162006006833

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'langai'-k Elgoibarren dituen zentzura deitu: IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

ABISUAK

• Karitasek kotxe kapota, kotxetila, sehaska eta josteko makina behar ditu.

943 74 15 09

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Iker** gaur urte bat egin duzulako. Musutxubat etxekoan partez.



▶ Zorionak **Ander** hilaren 19an 7 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Gorkaren partez.



▶ Zorionak **Ion** hilaren 13an 8 urte egin zenituelako. Familiakoan eta bereziki Nora eta Mariaren partez.



▶ Zorionak **Aimar** gaur urtebete egin duzulako. Familiako guztien partez.



▶ 2 urte egingo dituen mutil honi 2.000 kilo zorion. Inigo eta Maixuxek bi belarri-tirakada.



▶ Zorionak **Andoni** hilaren 13an urteak egin zenituelako. Olaia, Julene eta familiakoan partez.



▶ Zorionak **Oihane** hilaren 14an 4 urte egin zenituelako. Familiakoan eta bereziki, Mikelen partez.



▶ Zorionak **Haritz** bihar 11 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta bereziki, anaia Eñauten partez.



▶ Zorionak **Yolanda eta Vitorio!** Egun ona pasa dezazuela! Familiakoan partez.



▶ Urrun zirudien baina azkenean iritsi da zuen egun handia. Hasi guapo-guapo jartzen. Ondo pasa **Alex eta Maria**. Familiakoan eta lagunen partez.



▶ Zorionak **Eulogio eta Vanessa!** Egun zoriontsua izan dezazuela zuen ezkontza egunean.



▶ Zorionak **aita, ama, aitabaxa eta amama** zuen urrezko ezteietan. Eskerrik asko gu hain ondo hazi eta hezitzeagatik.



▶ Zorionak **bikote** ekainaren 24an zuen ezkontza eguna delako. Jarraitu honelako maitakor beti! Irrintzi eder bat zuen omenez. Mendaroko lagunen partez.

IDAZMAKINAK 2006



sari banaketa
**IBAN
GARATEREKIN**

Ekainak 21
(asteazkena)
19:00etan
Kultur Etxeko sotoan

ALBOKUAK INMOBILIARIA



ALTZOLA

- 3 logolako etxebizitzak terrazarekin.
- Duplex-ak.
- Garajeak.

Errosario, 12 • E-posta: albokuak@euskalnet.net
Tel.: 943 74 06 73 / 656 79 71 69



Buzkarta S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



[OKINDEGIA]



18 igandea IBARRENA



[FARMAZIAK]

- GUARDIA** 24 ORDUZ
- 16 Bidasolo
 - 17 Etxeberria (Erosario)
 - 18 Etxeberria (Erosario)
 - 19 Fernandez
 - 20 Yudego
 - 21 Zabaleta
 - 22 Etxeberria (Erosario)
 - 23 Ibañez

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
 Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
 Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.



[TELEFONOAK]

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Larrialdiak	943 46 11 11
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Hirigintza	943 74 43 84
Epaitegia	943 74 16 30
Haziena	943 74 44 14
Mendaroko Udala	943 03 32 82
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94
Debemen	943 74 40 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98
Bizkaibus	902 222 265

BESTELAKOAK

BARREN astekaria	943 74 41 12
Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kirolegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gazte Informazioa	943 74 14 61
KZ gunea	943 74 88 28

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua • Arreiturre	943 74 80 19
•Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31



ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak
 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40,
 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00,
 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak
 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00,
 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak
 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00,
 20:40
Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak
 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30,
 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30,
 19:30, 20:45.
Larunbatak
 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30,
 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak
 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak
 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45...
 ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak
 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak
 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena
 21:55.
Asteburua eta jaiegunak
 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

SAN MIGELDARREN EGUNA 2006

Ekainak 18 (Domekia)

12:00 Meza Nagusia auzoko hildakoen alde
Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dira
 13:00 San Migelgo auzotarren arteko pilota partidua
 G. Telleria (Belarreta) - E. Loiola (Sagarraga) - Arrizabalaga (Orube) - I. Txurruka (Talaixa)
 14:30 Bazkaria auzoko sukaldariak prestatuta
Ondoren, dantzaldia Gardokirekin

[16 BARIXAKUA]

17:30 TIRIKIKONTU-KONTARI TXOTXONGILO IKUSKIZUNA

2-6 urteko haurrei eta hauen gurasoei bereziki zuzendua
 Taldea: Gorakada
 Herriko Antzokian
 Kiribilka programaren barruan
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

19:00 EGUR TAILERRARREAN

EGINDAKO LANEN

ERAKUSKETAREN

INAUGURAZIOA

Kultur Etxeko erakusketa gelan
 Ekainaren 30era arte

[17 ZAPATUA]

8:30 II. TENIS TXAPELKETA

IMHko eta Olaizagako tenis-pistetan
Arratsaldeko 16:30ak arte

Antolatzailea: Basarte elkarte

9:00 DEBAKO ERMITIA

KOBAZULORA IRTEERA

Irteera: Plaza Txikiik (lokaletik)

Antolatzailea: Elgoibarko

Espeleologia Taldea

Dohainik

Informazioa: 685613801/646369410

9:30 IGERIKETA EGUNA

Goizez, Olaizaga Kiroldegain

Antolatzailea: Elgoibarko Igeriketa

Taldea

11:00 IMHKO INGENIARITZA

ESKOLAKO ATE IREKIEGUNA

IMHko Karakate Gelan

22:00 TRISKA DANTZA TALDEAREN

KURTSO BUKAERAKO JAIALDIA

Olaizaga Kiroldegian

[18 DOMEKIA]

10:00 II. TENIS TXAPELKETAKO FINALAK

IMH Tenis Pistan

Antolatzailea: Basarte Elkarte

11:00 EIBARKO UDAL MUSIKA

BANDAREN KALEJIRA

12:30 EIBARKO UDAL MUSIKA

BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

[22 EGUENA]

17:00 URPEKARITZA EZAGUTU

Mintxetako Aire Libreko Igerilekuetan

Antolatzailea: Udal Kirol Patronatua

18:30 I. BEREZIARTUA MUSIKA

ETA DANTZA ESKOLAKO KURTSO

BUKAERAKO DANTZA JAIALDIA

Herriko Antzokian

[23 BARIXAKUA]

10:00 "KALEAN IRAKURRI"

EGITASMOA

Antzerkia, jolasak, trikitalaria, e.a.

egun osoan zehar

Antolatzailea: Udal Liburutegia eta

Eusko Jaurlaritza

14:30 ALTZOLAKO SAN JUAN

JAIEN HASIERA

Txapliguak eta kanpai jotzea

15:45 LAGUNAK PILOTA

TXAPELKETAKO FINALAK

Plaza Handian

Antolatzailea: Lagunak Pilota

Eskola

19:00 MEZA SANTUA ETA SALBEA

ALTZOLAN

20:00 SAN JUAN ARBOLA

JARTZEA ALTZOLAN

22:30 SAN JUAN SUA ERREKAN

Altzolan

23:00 "ECLIPSE" TALDEAK

ALAITUTAKO DANTZALDIA

Altzolan

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Instinto Basico 2»

16, barixakua: 22:15

17, zapatua: 19:30-22:15

18, domekia: 19:30-22:15

19, astelehena: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«Vecinos Invasores»

9, barixakua: 19:30-22:15

10, zapatua: 17:00-19:30-22:15

11, domekia: 17:00-19:30-22:15

12, astelehena: 19:30-22:15

13, martitena: 19:30-22:15

14, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Camino a Guantanamo»

9, barixakua: 19:30-22:15

10, zapatua: 17:00-19:30-22:15

11, domekia: 17:00-19:30-22:15

12, astelehena: 19:30-22:15


13, martitena: 19:30-22:15

14, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emandien aldaketan erantzukizunik.

SINOPSISIA

«Instinto Basico II»



Zuzendaria: Michael Caton-Jones

Antzezleak: Sharon Stone, David Morrissey.

Sharon Stone erakargarriari mundu mailako ospea eman zion filmearen bigarren zatia. Catherine Tramell, Stonek antzezten duen pertsonaia, San Frantsizkotik (AEB) Londonera bizitzera joatea erabakiko du eta bertan bere idazle lanbidearekin jarraitzea. Zilindrada handiko auto bat gidatzen ari dela istripua izan eta bere mutilaguna bertan hilko da. Fiskaltzak berari leporatuko dio mutilagunaren hilketa eta psikiatra batek azter dezala eskatuko du. Bien artean txinpartak aterako dituen pasioa sortuko da.

Atzera hegira



1954 /1955 futbol denboraldiari dagokion erretratu zahar hau **Jose Gabiolak** laga digu. Bigarren B mailara igotzeko "play-off"etan sartzeko aukera apur batzuk izan ditu aurten Haundik, baina elgoibartarren futbolerako doainak ez dira gaur goizeko kontua. Due-la mende erdi pasatxo ere Bigarren Mailara (orduan bigarren maila bakarra zegoen) igotzeko kanporaketak jokatu zituen C.D. Elgoibarrek. Besteak beste, Kataluniako Manresa eta Girona, Madrileko Plus Ultra eta Rayo Vallecano edo Arenas eta Amistad Zaragozako taldeen aurka jokatu zituzten partidak elgoibartarrek. Igotzerik lortu ez bazuten ere, nahikoa meritu herri txiki batentzat. Argazki hau Manresako futbol zelaian aterata dago. Bitxikeria gisa, esataria bozgorailuetatik elgoibartarren alineazioa esaten hasi zenean abizen guztiak 'a' hizkiaz bukatzen zirela konturatu zen eta kuriosoa iruditu zitzaion koinzidentzia hura aipatu omen zuen. Bestalde, elgoibartarrek kamiseta zuria jantzita jokatu zuten, Manresak ere kolore txuri-gorriekin jokatzeko baitzuen garai hartan. Ikus dezagun nortzuek osatu zuten egun hartako hamaikakoa. Tente, ezkerretik eskumara: **Eduardo Iru-ta** (), **Jose Maria Igartua**, **Jose Luis Ansola**, **Ramon Egaña** (), **Jesus Rementeria**, **Juan Mari Anitua**. Makurtuta, ezkerretik hasita: **Iñaki Gorostiza**, **Jose Gabiola**, **Alberto Loiola** (), **Ladis Irureta** eta **Luis Mari Ruiz de Gauna**.



PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilon, 2 3.sotoa 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



615793406
MENDARO
Eraikitzailearen prezio zuzena, bitartekorik gabe.
3 logela, saloi-jangela,
2 komun, sukaldea eta balkoia.
90m²-ko azalera erabilgarria.
Material bikainez eraikia.
Azkeneko etxebizitzak.
41.615.000 pta

Hiru sokako minué-aren alde ez dugu lan handirik egin, baina bai zure automobilaren finantzaketaren alde



Chevrolet Lacetti

LACETTI 1.4 SE 16V AIRE DOKITUA ETA 5 URTEKO BERMEA

SARRERARIK GABE

60€ / hilabetean - LEHEN URTEA

140€ / hilabetean - GAINERAKO 107 KUOTIAK

114,9 L/100 KL ANA GASOLINA BANAN. **6,03% TAE**

Giauto 902 345 225

Olaola Etorbidea, 27 - EIBAR - Tel. 943 70 08 41
 Karabi Industrialdea s/zg - OLABERRIA - Tel. 943 88 51 50
 clientes@giauto.es

www.chevrolet.es



Chevrolet gehiago da.

Lacetti modelo 1.4 SE 16V (eta da moduko modelo berbera). Zehaztua: 11.871 € (gasolinako preteko plana eta kudeaketa berrak). Kostak: Irak. 129.000 €, 136a. 119a. 110 €. Finantzatu behar denak: 15.888,28 €, TIN: 5,26%, TIC: 0,03%, Inpostu konplexu: 2,5 % (200,29 €). Datoz autoren kredituarekin. Lehen urteko 2005-06-30 arte bako duen Tontrola eta Datozaren. Finantzatzaile: Banco de Crédito, S.A. (BIC: 1912108). Konsumo erata: 0/100 Km: 7,1-8,3. CO2 (gasea): 160/171-210. Mota eta Iraketa berrak: 1.381.833 Euro. Lehen urteko 2005-06-30 arte bako duen Tontrola eta Datozaren. Lehen urteko 2005-06-30 arte bako duen Tontrola eta Datozaren. Lehen urteko 2005-06-30 arte bako duen Tontrola eta Datozaren.



autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako mintegiak

Enpresan denbora eta baliabideak nola banatu

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan

Gure **denbora** eta enpresako **baliabideak egoki kudeatzeko** modua erakutsiko dizugu. **Koordinatze**ko, gehiegizko lekualdaketa ekiditeko eta baliabideak erabiltzerakoan **denbora eta dirua aurrezteko**, kostu baxuko **soluzioak** (baita doakoak ere) erakutsiko dizkizugu.

Deba Barrena
ekainak 20

ELGOIBAR
Makina Erremintaren
Institulua (IMH)

Ordutegia:
18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:
943 747 314
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:



Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euzko Legebiltzarra



elgoibarr

48 etxebitza, 2 eta 3 logelakoak

117 garaje eta 76 trasteleku



Tfno.: 943 74 80 92

Fax: 943 74 82 42

www.infolur.net

www.residencialgeminis.com

